

**SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA****KIRURGIA OROKORRA ZERBITZUA****HIZLARIA: SILVIA GARCÍA HERRERO DK.****MODERATZAILEA: IZASKUN DEL HOYO ARETXABAKA DK.****2019KO MARTXOAREN 22AN, 8:15EAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA)****KASU KLINIKOA****AURREKARI PERTSONALAK**

- 55 urteko emakumea.
- Erretzaile ohia.
- Migraina.
- Sindrome depresiboa.
- Ebakuntza kirurgikorik ez.
- Ohiko tratamendurik ez.

**ORAINGO GAIXOTASUNA**

2018ko Uztailan Urgentzietako Zerbitzura jo zuen 6 urtez uzki kanpoko aldean hazitako tumoraziotatik. Aurreko 3 hilabetetan, ondesteko odol-jarioa eta moko izurketa eta gorotzei ezin eustea agertu ziren. Eta azkenengo hilabetean, txisari ezin eustea, husterakoan baginatik odol-jarioa eta hematuria gehitu ziren.

**MIAKETA FISIKOA**

Sukarririk ez.

Uzki aldean lesio ezkreszentea, gogorra, barruko planoetara atxikituta. Kanpo genital eta bagina normalak. Gongoil gogorrak bi iztaialdetan.

**FROSA OSAGARRIAK**

- Analitika: Hb 10.3. Bestelako parametroak normalak.
- TC: Ondeste eta uzki bitarteko mugara heltzen den tumorazioa, butzadura partziala eragiten duena. Uzki, ondeste eta bi iztaildetako aldean adenopatia susmagarriak.

→ **Zein da zuen susmo diagnostikoa?**

→ **Bestelako froga osagarriarik eskatuko zenioke?**

→ **Zuen susmoan oinarrituta, ze tratamendu eskainiko zenioke?**